



LIZITAZIORAKO IRAGARKIA

Aguraingo udalerriko Senda de Langaricako SUR-2 eta SUR-4 sektoreetako dotazio zonak urbanizatzeko obren kontratazio espedientea onartu zuen.

LEHIAKETARI BURUZKO DATUAK

- 1.- **Erakunde esleitzaila:** Aguraingo Udala.
- 2.- **Kontratuaren helburua:** Aguraingo Senda de Langaricako SUR-2 eta SUR-4 sektoreetako dotazio zonak urbanizatzeko obrak.
- 3.- **Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:** lehiaketa irekia.
- 4.- **Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua:** 580.648,85 euro
- 5.- **Lehiaketa esleitzeko irizpide hauek hartuko dira oinarri:**
 - Prezioa: ehuneko 75.
 - Gauzatze epea: ehuneko 15.
 - Berme epea luzatzea: ehuneko 10.
- 6.- **Behin-behineko bermea:** 11.612,98 euro
- 7.- **Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:** Aguraingo udaletxeko bulegoetan, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean, eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.
- 8.- **Kontratistaren berariazko betebeharrak:** administrazio cláusula berezien agirian zehazten dira.
- 9.- **Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:** Aguraingo udaletxeko bulegoetan, astelehenetik ostiralera bitartean, 10:00etatik 14:00etara, iragarki hau argitaratu eta hurrengo 26 egunetan.
- 10.- **Eskaintzak irekitzea:** administrazio klausula berezien agirian zehaztutakoaren arabera.
- 11.- **Iragarki gastuak:** esleipendunak ordainduko ditu.

Agurain, 2009ko uztaila.

ALKATEA, IÑAKI BERAZA ZUFIAUR



OBREN KONTRATAZIOA

KONTRATUAREN EZAUGARRIEN KOADROA

A) KONTRATUAREN XEDEA

Agurain udalerriko Langarikako Bidezidorrako SUR-2 eta SUR-4 Alderdi Zuzkitzaileetan Urbanizazio Lanak

B) AURREKONTUA (BEZ-a BARNE)

Zifretan: 580.648,85.- €

Letretan: bostehun eta laurogei mila seihun eta berrogeita zortzi koma laurogeita bost euro

C) URTEKOAK

URTEA	ZENBATEKOA	PAR. PPTARIA.
2.009	580.648,85.- €	511.601.012

D) ESLEIPEN PROZEDURA

Lehiaketa Irekia

E) BURUTZEKO EPEA

Lau Hilabete

F) GARANTIAREN EPEA

Urte bat

G) KONTRATISTAREN SAILKAPENA

TALDEA	AZPITALDEA	MAILA
G	6	d

H) BEHIN BEHINEKO GARANTIA

11.612,98.-€

I) BEHIN BETIKO GARANTIA

Esleipenaren zenbatekoaren %5

J) ALEKO PREZIOAK

Bai

K) KONTRATISTARI ORDAINKETA

Aldizkako egiaztapenen bidez

L) PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio

M) ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Aguraingo Udaleko Erregistro Orokorrean, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, lizitazio hau Araba Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik datozen 26 egun naturaletan zehar



N) DAGOZKION BALORAZIO ETA PONDERAZIO IRIZPIDEAK

- Zenbatekoa - %75: Irizpide honen balorazioa egingo da lizitazio tasarekiko eskaintzari zero esleituz, eta eskaintza bajuenari puntuazio gorena esleituz, eta gainerakoei proportzio aritmetikoan.
- Burutzeko Epea – %15: Irizpide honen balorazioa aurrekoaren moduan egingo da.
- Garantia Epea Luzatzea – %10: Bi hilabeteko puntu bat, 10 puntu maximoa delarik.

O) OHARRAK



**PROZEDURA IREKIKO OBREN KONTRATUAREN KLAUSULA ADMINISTRATIBO
PARTIKULARREN PLEGUA ETA LEHIAKETAREN ESLEIPEN MODUA, PRESAZKO
TRAMITAZIOA**

**AGURAINGO LANGARIKAKO BIDEZIDORRAKO SUR-2 ETA SUR-4 ALDERDI
ZUZKITZAILEETAN URBANIZAZIO LANAK**

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Honakoaren bidez egingo den kontratuak Aguraingo Langarikako Bidezidorra Sur-2 eta Sur-4 alderdi zuzkitzaileetan urbanizazio lanak egitea xedea du, kontratuzko espedientean dagoen dokumentazio teknikoaren arabera.

Hurrengo dokumentuek kontratuzko izaera dute:

- Plegu hau.
- Proiektua osatzen duten dokumentuak.

Eragin guztietarako, aipatu dokumentuak Klausula Administratibo Partikularren Plegu honi erantsitatzat jotzen dira; plegu hau, adostasuna erakuste aldera, adjudikatariak sinatu behar du kontratua formalizatzerakoan

2. BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xedea diren obrak burutzeko epea LAU (4) hilabetekoa izango da, edo kontratistak eskintzen duena, hau baino motzagoa balitz, zuinetaren egiaztapen aktaren sinaduraren hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Kontratista berandutze egoeran egongo da aipatu epea pasatzean, Administrazioaren alde zuzkitzailearen beldurtarazpena beharrezkoa ez delarik.

3. KONTRATUAREN ZENBATEKOA

Kontratuaren zenbatekoa, BEZ-a barne, 580.648,85. €koa izango da, zenbateko hau lizitatzailerik hobetu ahalko dutelarik.

Kontratuaren zenbatekoak aleko prezioen zerrenda izango du, egoki desglosatuak, burutzean zehar indarrean egongo direnak. Prezio hauek aurkezten ez badira, lizitatzailerik Administrazioaren aurrekontuan agertzen diren berberak aurkezten dituela ulertuko da, bere proposamen ekonomikoaren edukiaren beherako ehuneko berean eragindakoak.



4. FINANTZAKETA

Kontratuaren zenbatekoa pagatzeko finantzaketa aurreikusita dago, aurtengo aurrekontuaren kargura.

5. ORDAINKETAREN MODUA

Burututako obren zenbatekoa benetakotu egingo da aldizkako egiaztapenen bidez, obren zuzendari fakultatiboak luzatuak eta kontratistak sinatuak.

Luzatutako egiaztapenen ordainketak hirurogei eguneko gehiegizko epean egingo dira, kontu onean egindako ordainketak dira, gerta daitezkeen zuzenketak eta aldakuntzak kontuan hartuta, honek, inondik inora, obren aprobazioa nahiz jasoketa suposatzen ez duelarik.

Adjudikatariak adostutako zenbatekoen arabera kobratzeko eskubidea dauka.

6. PREZIOEN BERRIKUSKETA

Kontratua kontratistak bere gain eta galorde egingo du.

Kontratu honetan ez dira prezioak berrikusiko.

7. BERMEAK

Lizitazio honetan parte hartu ahal izateko, lizitatzailleek behin behineko 11.612,98 euroko bermea jarriko dute (kontratuaren aurrekontuaren %2aren baliokidea) eta esleipenaren ondoren itzuliko da.

Behin behineko berme hori, lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak esleipen unera arte mantentzeko, eta esleipendunak egindako proposamena, kontratua sinatzen denera arte mantentzeko izango da. Ondorioz, esleipena egin baino lehen inolako arrazoirik gabe proposamena erretiratzen duen esleipendunari, eta era berean behin betiko bermea ordaintzen ez duen esleipendunari edota berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, dagokion epean kontratuaren formalizazioa eragozten duenari konfiskatu egingo zaio eta kasu horietan gauzatu egingo da.

Ondorio horietarako, proposamenaren arrazoirik gabeko erretiratzetat hartuko da, eskaintzetan ausarkerian erori dela uste izate kasuan informazio eskariari ez erantzutea edota lizitatzailleak, bere proposamenak akatsak dituela edo ahula dela eta ondorioz bidegabea dela onartzea.

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea ordaindu beharko du, esleipenaren prezioaren %5eko zenbatekoagatik.

Berme hori ordaintzeko epea hamabost lan-egunekoa izango da kontratuaren esleipenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, eta Herri



Administrazioen Kontratuen Legearen 84 artikuluan ezarritako edozein eratan ordaindu ahal izango da.

Legalki adostutako aldaketak direla eta, aurrekontu osoa handitzen denean, bermea egokituko da, lanaren aurrekontua eta bermearen artean izan beharreko portzionaltasuna mantentze aldera.

Bermearen itzulketa, bai osoa bai partziala, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da, berme epea amaitu eta esleipendunak, kontratuaren ondoriozko obligazio guztiak bete ondoren.

8. KONTRATUAREN GAUZATZEA

Kontratuaren gauzatzea zuinetaren egiaztaketa aktaren sinadurarekin hasiko da, esleipen egunetik hasi eta hamabost egun naturaletako epean.

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da eta instalazioei gerta dakizkien galera, matxura edo kalteengatik ez du kalte-ordain eskubiderik izango, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 214. artikuluan aurreikusitako pisuzko arrazoiengatik ez bada.

Edozein kasutan, obrak, Plegu honetan aurreikusitako klausulak, Aguraingo Udalak aprobatutako proiektuarekin batera doazen zehaztapen teknikoak, eta interpretazio tekniko gisa Zuzendaritza Fakultatiboak kontratistari emandako aginduak zehatz-mehatz betez egingo dira.

Era berean, Herri Administrazioen Kontratuen Legean eta urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretuak onartzen duen, esandako Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoa ere zehatz-mehatz betez egingo dira. Bereziki, kontratuaren gauzatzea, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean gauzatuko da, zeinak ahalmen horiek, idatziz nahiz ahoz gauzatuko dituen.

Kontratistari edo bere menpeko norbaiti egotz dakizkiokeen kausengatik, kontratua zalantzan jartzen bada, Administrazioak, hura behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea exijitu ahal izango du

9. KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratistaren obligazioa da, lan harreman, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasuna eta higienezko gaitan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea. Administrazioa erantzukizunetik askatuta geratuko da, kontratistak baldintzen bat bete ez duelako.



10. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratista, obrek dirauten artean, bere kargura dauden langileek egindako ekintza, huts-egite edo zabarkerien ondorioz, edota antolaketa, babes edo seinalizazio eskasagatik edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, publiko nahiz pribaturi, eragindako kalte-galera guztien erantzule izango da

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, behar berriak edo uste gabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 220.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Zuzendari Fakultatiboak obretan aldaketak egin behar direla uste duenean, dagokion espedientea hasteko Kontratazio Organoaren baimena jasoko du; aipatu espedienteak aldaketak justifikatu, deskribatu eta baloratzen dituen dokumentuak bilduko ditu.

Ez Zuzendari Fakultatiboak, ez kontratistak ezingo dute kontratuaren obretan aldaketarik egin, aipatu aldaketa eta horrek sortutako aurrekontua aprobatu arte.

Kontratuan emango diren aldaketek, bertan aurreikusi gabe dauden instalazio unitate berriak sartzea dakartenean, aldaketa horien prezioak, Kontratazio Organoak ezarritakoak izango dira eta kontratistak onartuko ez balitu, Kontratazio Organoak beste enpresari batekin kontratatu ahal izango ditu, ezarritako prezio berdinetan edo zuzenean gauzatu ahal izango ditu.

12. ONDASUNAK JASOTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren helburua diren obrak amaitu eta, gehienez ere, hilabeteko epean emakida hartzeko egintza formala eta positiboa egingo da, egoki den akta eginez.

Gainera, urte bateko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, berme gisa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean eta lege horren Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme epeak irauten duen bitartean, kontratistak obran ager daitezkeen bizio zein kalte-galeren erantzukizuna izango du, Preskripzio Teknikoen Pleguan ezarritakoari eta obretako Zuzendari Fakultatiboak emandako aginduei jarraituz, bertan sor litezkeen berezko kalte-galeren erantzule direlarik.

Edozein modutan, berme epea iraganda badago ere, hamabost urteko epean kontratista berak erantzun beharko die kalte-galerei, leudekeen bizio ezkutuengatik hondatzen bada eta hondatze hori bere erruz (kontratua ez-betetzeagatik) ematen bada. Epe horretan kalterik eta galerarik azaleratuko ez balitz, iraungia geratuko da kontratistaren erantzukizuna.



Berme epea iragan baino hamabost egun lehenagoko epean, obrako Zuzendari Fakultatiboak, ofizialki edo kontratistak eskatuta, obretako egoeraren gaineko txosten bat idatziko du, bermearen itzulketa edo deuseztatzeari ekingo zaiolarik, baita erantzukizunen likidazioari ere.

13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe badu kontratua, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko, kontratuaren zenbatekoaren 1000 euro bakoitzeko 0,20ko proportzioan.

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, Kontratazio-Organok aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala egin ezean, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo Kontratuaren prezio osoaren 100eko 10aren baliokidea izango den zigorra ezartzea

14. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 206 eta 220 artikuluetan ezarritakoak izango dira obra kontratua bertan behera uzteko arrazoiak.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENA

Administrazioari dagokio, kontratuak interpretatzea, haren betetzean sor daitezkeen arazoak konpontzea, arrazoi publikoengatik aldatzea, bertan behera uztea eta haren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen eta bere Araudi Orokorraren mugen barruan eta bertan adierazten diren betekizun eta ondorioei jarraituz.



II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

16. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da, eta kontratatzeke era lehiaketa izango da.

Lehiaketa esleitzeko oinarri bezala erabiliko diren irizpideak, garrantziaren eta ematen zaien ponderazioaren arabera ematen direnak, ondorengoak dira:

- Prezioa: %75
- Burutzeko epea: %15
- Bermearen epea luzatzea: %10

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten, eta finantza kaudimena, ekonomikoa eta teknikoa edo profesionala frogatzen duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute lizitazio honetan, baldin eta ez badira sartzen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 49. artikuluan zehaztutako debekuetan. Kaudimena, 18. klausulako e) letran ezarritako bitartekoekin bat etorri frogatu eta ebaluatuko da.

Halaber, beraien izenean edo ordezkari bat erabiliz aurkeztu dezakete eskaera; azkenengo kasuan behar den ahalmen-agintea aurkeztu beharko dute. Era berean pertsona juridiko baten izenean bertako kideren bat aurkeztuko balitz, horretarako behar diren ahalmenak dituela egiaztatzeko dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu. Kasu bietan ordezkariak kontratatzeke behar den gaitasuna izan beharko du.

Era berean, enpresariak kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoa den enpresa-gaitasuna izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako leku, ordutegi eta epean aztertu ahal izango da: LEKUA: Administrazio honetako Udal Bulegoak. ORDUTEGIA: asteleheneetatik ostiraletara 10:00etatik 14:00etara, lizitazioaren iragarkia Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.

Proposamenak aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira, hogeita sei (26) egun naturaleko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Halaber, lizitazio hau kontratazio organoaren kontratatzaile perfilean iragarriko da, sarbidea Aguraingo Udaleko web orrialdean duena.



Lizitatuzaileek eska dezaketen plegu edo dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako epea amaitu baino sei egun lehenagoko epean aurkeztuko da, betiere eskaria gutxienez proposamenak hartzeko lehen adierazitako epea amaitu baino zortzi egun lehenago egin bada.

Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 142.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, plegu edo dokumentazio osagarriaren gaineko informazio gehigarria emandako epe barruan aurkeztu ez denean, edota eskaintzak orubea bisitatu ostean edo pleguaren dokumentazio osagarria bertan kontsultatu ostean egin behar direnean, eskaintzak aurkezteko epea luzatuko da lehiatzaile kalte-dunek proposamenak egiteko behar duten informazioa eskuratzeko behar beste denbora.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztutako proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak dagokion posta-egiaztagiria bidali beharko dio Kontratazio Organoari telexez, telekopiaz, telegramaz edo posta elektronikoen bidez, bidalketa egindako egunean bertan. Iragarkia posta elektronikoen bidez bidali beharko da Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorreko 80.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Lehiatzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dute itxita. Kartazal bakoitzaren barruan honako hau idatziko da: "LEHIAKETA IREKI BIDEZ EGINGO DEN AGURAIN UDALERRIKO LANGARIKAKO BIDEZIDORRAKO SUR-2 ETA SUR-4 ALDERDI ZUZKITZAILEETAN URBANIZAZIO LANEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak adieraziko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

"A" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lizitatuzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, pertsona edo erakunde baten izenean agertzen bada, notarioaren ahalordea.
- b) Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura, dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, merkataritzako legeria aplikagarriaren arabera inskripzioa exijitu behar bada. Ez bada beharrezkoa, jarduteko ahalmena eraketa eskrituraren edo agiriaren, estatutuen edo eraketa ekitaldiko agiriaren bidez egiaztatuko da, zeinean agertuko diren bere jarduera arautzeko arauak, dagokionean, dagokion Erregistro ofizialean inskribatuta. Enpresariak espainiarrak ez badira eta Europar Batasuneko kidea den estatu batekoak badira, jatorrizko erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden Estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko deklarazio edo egiaztagiri bat aurkeztuko dute, xedapen komunitario aplikagarrien arabera.



- c) Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49 artikuluan kontratatzeko zerrendatutako debekuetan sarturik ez egoteari buruzko berariazko deklarazioa, eta horren barruan sartuko da espresuki indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean beteta dituela, bi egoera horiek egiaztatzeke agiriak ematen badira izan ezik.
- d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztatzea, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, uneko ekitaldiari badagokio, edo JEZaren azken egiaztatzea, gainerako kasuetan, eta bi egoeretan erantzukizunezko deklarazio bat ere emango da, aipatu zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela adierazteko.
- e) Obrak kontratatzea baimentzen duen kontratistaren egiaztatzea sailkapen honekin: (maila, taldea, azpitaldea): d, G, 6.
- f) Prozedura negoziatura jotzeko hainbat enpresarik Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratu badute, hori osatzen duten enpresetako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta halaber konpromisoa erakutsi beharko dute esleipendun gertatuz gero formalki ABEE eratzeko. Halaber, ABEEko kide bakoitzak xedearen zein proportzio egingo duen adieraziko dute, guztien kaudimenaren gaineko baldintzak zehazteko eta egiaztatzeko.
- g) Atzerriko enpresentzat, maila guztietako Epaitegi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jartzeko deklarazioa, kontratutik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen gertakizun guztietarako, eta, dagokionean, lizitatuazileari egoki dakiokkeen atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.
- h) Behin-behineko bermearen egiaztatzea.

Aurreko a), b) eta e) letretan adierazitako egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal izango dira, edo Estatuko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bidez, edo sailkapen ziurtagiri komunitario bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 73 artikuluaaren arabera. Kasu horretan, aipatu ziurtagiriarekin batera lizitatuzailearen erantzukizunezko deklarazio bat eman beharko da, zeinean adierazten den dagokion ziurtagirian agertzen diren egoerak ez direla aldatu.

“B” kartazalaren azpitolua haxe izango da: “DIRU-PROPOSAMENA ETA ESLEIPEN IRIZPIDEAK” eta ondorengo dokumentuak edukiko ditu:

- a) Proposamen ekonomikoa ondorengo eredura lotutakoa:

.....jaunak/andereak,
helbidea:.....



PK....., NAN zk....., telefonoa.....,
gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izanik,, bere izenean (edo hori
ordezkatuz
....., helbidea.....
....., PK....., telefonoa.....,
eta NAN edo IFK zk. (pertsona fisikoa edo juridikoa izan)
.....), Aguraingo Udalak Aguraingo Langarikako
Bidezidorrako Sur-2 eta Sur-4 alderdi zuzkitzaileetan Urbanizazio Lanak kontratatze
deitutako lehiaketaren berri izanik, adierazten dut:

1º) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan, euro (letraz
eta zenbakiz), gehi euro (letraz eta zenbakiz), BEZ-aren %.....-ri dagokiona,
guztira euro (letraz eta zenbakiz), eta (letraz eta zenbakiz)
.....-(e)ko epean burutuko dudala. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira:
zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri
onura ere.

2º) Proiektua, bere osotasunean ezagutzen dudala, baita Baldintza Teknikoen
Plegua eta kontratu hau arautu behar duten edukiak, administrazio-baldintza zehazten
agiria eta gainontzeko agiriak. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat hartzen ditut
oso-osorik.

3º) Ordezkatzen dudana enpresak, irekitzeko, instalatzeko eta funtzionatzeko
indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.

....., 2009koarena

Sinadura

b) Plegu honetako 16. klausulan adierazitako, esleipen irizpideen betetzea
egiaztatuko duten gainerako dokumentuak.

Exijitutako dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia izan daiteke, eta kopia bada
Administrazioan edo notarioak behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta egongo da.

19. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero, Mahaiak epe eta modu
egokian jasotako dokumentazioa ("A" kartazala) sailkatuko du, horretarako, Herri
Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 81 artikuluan eta
hurrengoetan esaten den bezala jokatzu.

Ondorio horietarako, lizitatzailen gaitasunari eta kaudimenari buruzko argibide
edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira, Araudiaren 22. artikulua xedatzen
duen moduan, hiru egun naturaleko epean. Argibideen edo informazio osagarriaren
eskaria, ahoz jakinaraziko die Mahaiak interesatuei, eta era berean, Kontratazio
Organoaren Iragarki Taulan argitaratuko da. Modu berean jakinaraziko die Mahaiak,
aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak daudela, kasu horretan, hiru
laneguneko epean, lizitatzailerek antzemandako akatsak zuzendu edo konpon ditzaten.



Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta antzemandako akatsak edo huts egiteak konpondu ondoren, plegu honetako 18. klausulan zehaztuta dauden hautaketa irizpideekin bat datozen enpresak zehaztuko ditu, eta espresuki adieraziko du, lizitazioan onartuta eta kanporatuta geratzen direnak zeintzuk diren, azken kasu horretan kanpoan geratzeko arrazoen berri espresuki emanez.

Aurkeztutako proposamenak ("B" kartazala) jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren asteguneko arratsaldeko 13:00etan, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean zehaztutakoa beteko da, (jaieguna izango balitz hurrengo lanegunera arte atzeratuko litzateke).

Ondoren, 16. klausulan ezarritako irizpideei jarraituz, proposamenak baloratzeari eta sailkatzeari ekingo zaio orden beherakorrean, eta, hala balegokio, egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio Mahaiak, esleipena egin behar duen Kontratazio Organoari pasako dio esleipen proposamena.

20. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak kontratuaren behin-behineko esleipena ekonomikoki onuragarriena den proposamena aurkezten duen lizitzaileari emango dio.

Esleipena, gehienez, hiru hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe hau, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 145.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ezohikoa edo neurritz kanpoko den proposamen bat edo gehiago identifikatzean Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 136.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartu behar denean, hamabost astegunetan luzatuko da.

Eskaintzak ezohikoak edo neurritz kanpokoak izendatzeak lizitzaileari edo aurkeztu dituzten lizitzaileei entzunaldia ematea eskatzen du, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

Kasu honetan, Kontratazio Mahaiak lizitzaileak emandako azalpena eta eskatutako txostenen arabera, ekonomikoki onuragarriena den proposamenaren aldeko behin-behineko esleipena erabakiko du, Administrazioaren gustukoa izan daitekeena, edo horren ezean, ezohikoa edo neurritz kanpoko ez dena.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, behin-behineko esleipendunak hamabost egun izango ditu honako jarduera hauek egiteko:

- a) Egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu; halaber, kontratua gauzatzeko agindutako bitartekoak badituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.
- b) Behin betiko bermea ezarri beharko du eta, kasuan kasu, berme osagarria ere bai.



Behin-behineko esleipena behin betiko bihurtu behar da lehen esandako epea amaitu eta hurrengo hamar lanegunetan zehar, betiere esleipendunak adierazitako guztia egin badu. Aitzitik, horrelakorik egiten ez badu, behin-behineko esleipendunari ez zaio behin betiko esleipena egingo.

SPKLak 139.2 artikuluan aurreikusten duenaren arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzailerei eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzailerei entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua zeharo gauzatzeko Kontratazio Organoak behin betiko esleipena emango du eta esleipendunari jakinaraziko zaio; eta horrek, jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar lanegunetan zehar honako hauek egin beharko ditu:

- a) Publizitate ofizialeko gastuak egotekotan, hauek pagatzea, Aldizkari bakar batean eta ekitaldi bakar batean.
- b) Administrazio honetan agertu proiektuaren birplanteaketa konprobatzeko eta dagokion agiria sinatzeko.
- c) Azkenean, Administrazioan agertu, kontratuaren dokumentu administratiboa izenpetzeko.

Kontratataren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesdunari entzun eta gero, eta kaltegalera ordainduko dira.

Birplanteaketaren konprobazio agiria aurkeztu ezean, ezingo da obra hasi, edo horrekiko zentzuzko desadostasuna agertzen denean. Kasu horretan obraren hasiera suspendituko da edo behin betiko etendura adostuko da.

Era berean, ezingo da obra hasi Segurtasun eta Higiene Planaren onespenerik gabe, indarrean dagoen araudiaren arabera, beharrezkoa den obretan.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

21. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituta egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan aurreikusten ez den guztirako honako lege xedapenek diotena bete beharko da: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea; Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua; eta Administrazio Publikoen kontratazioetan aplikagarriak diren gainontzeko arauak.

Baldintza Administratibo Partikularren plegu honek dioena eta gainontzeko dokumentazio teknikoak dioena bat ez badatoz, pleguan ezarritakoak izango du lehentasuna.



22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honetarako datu pertsonalak eskuratzea beharrezkoa balitz, kontratistak SPKLak Hogeita hamaikagarren Xedapen Gehigarriak Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren gainean eta berau garatzen duten arauen gainean xedatzen dituen betebeharrak bete beharko ditu.

23. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

Kontratua betetzearen ondorioz sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren menpe egongo dira. Dena dela, aldeek auzi horiek arbitrajepean jartzea erabaki dezakete, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Agurain, 2009ko uztaila.



ANUNCIO DE ADJUDICACIÓN PROVISIONAL

- 1.- **Entidad adjudicadora:** Ayuntamiento de Agurain
- 2.- **Objeto del contrato:** Obras de Urbanización de las zonas rotacionales SUR-2 y SUR-4 de Senda de Langarica (Agurain).
- 3.- **Tramitación y procedimiento de adjudicación:** Ordinaria, por concurso abierto
- 4.- **Presupuesto base de licitación:** 580.648,85.- €
- 5.- **Adjudicación provisional:**
 - a. Fecha: 30-10-2009
 - b. Contratista: COYSER S.L.
 - c. Importe de adjudicación: 435.428,57.- €
6. **Plazo para realizar las actuaciones previstas en el pliego para la adjudicación definitiva:** 15 días hábiles.
7. **Fecha de inserción del presente anuncio:** 13-10-2009.
8. **Ultimo día de plazo previsto en este anuncio:** 30-10-2009.

Agurain, a 13 de Octubre de 2.009.

EL ALCALDE



ANUNCIO DE ADJUDICACIÓN DEFINITIVA

- 1.- **Entidad adjudicadora:** Ayuntamiento de Agurain
- 2.- **Objeto del contrato:** Obras de Urbanización de las zonas rotacionales SUR-2 y SUR-4 de Senda de Langarica (Agurain).
- 3.- **Tramitación y procedimiento de adjudicación:** Ordinaria, por concurso abierto
- 4.- **Presupuesto base de licitación:** 580.648,85.- €
- 5.- **Adjudicación provisional:**
 - a. Fecha: 30-10-2009
 - b. Contratista: COYSER S.L.
 - c. Importe de adjudicación: 435.428,57.- €
- 6.- **Adjudicación definitiva:**
 - a. Fecha: 04-11-2009
 - b. Contratista: COYSER S.L.
 - c. Importe de adjudicación: 435.428,57.- €

Agurain, a 9 de Noviembre de 2.009.

EL ALCALDE